

TAMAINA HANDIKOEN BILKETA

Ez utzi bazterrera



Zure etxean bilduko ditugu



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea



Traperos
EMAÚS
Nafarroa

948 302 898
[DOAKO BILKETA ZERBITZUA]

Tamaina handiko esaten diegunak etxeko objektuak dira (lastairak, altzariak, etxetresna elektrikoak, sofak eta beste tresna batzuk), kaleko edukiontzietara bota behar ez direnak eta era desberdin batean kudeatu behar direnak.

Zergatik bereziki tamaina handikoak?

Gainerako hondakinak bezala, garrantzitsua da tamaina handikoak bereiz biltzea. Hala eginda, hauek lortuko ditugu:

Berrerabiltzea. Beste batzuek erabili ahal izatea guk jada behar ez dugun zerbait.

Konpontzea. Objektu horiek konpontzea, hartara, “bigarren bizitza bat” izateko.

Berreskuratzea haien zati edo atal batzuk, beste berri batzuk egiteko.

Birziklatzea eta beren osagaiak baliatzea.

Tamaina handikoak aprobetxatzeak lanpostuak sortzen ditu

Tamaina handikoak eta beste material batzuk bildu, berreskuratu eta birziklatzea da **Emausko Trapuketarien** bizibidea.

Emausko Trapuketariak irabazteko asmorik gabeko fundazioa da, askotariko zailtasunak dituzten 200 lagunek baino gehiagok eratzen dutena. Herritartasun desberdinetako pertsonak dira, bazterkeriaren, sufrimenduaren eta pobreziaaren aurka borrokatzen direnak.

TAMAINA HANDIKO BATEN BIZI ZIKLOA



NOLA ESKATU BILTZEKO?

- > **Doako bilketa** etxebizitzan bertan.
- > **948 302 898** zenbakira deitu behar da biltzeko eskatzeko. Telefonozko arretaren orduategia astelehenetik ostiralera 08:00-20:30 da eta larunbatetan 08:00-14:00. Erantzungailu zerbitzua ere badago, deia itzulita.
- > 2 laneguneko edo 3 egun naturaleko epean (hiri-eremuko herrietan), zure etxera joango dira.
- > Bilketa **08:00-20:00** orduategian egingo da, astelehenetik ostiralera.
- > Zehatz adierazi behar da bildu beharreko objektuen kopurua eta zer motatakoak diren, ibilgailuen erabilera modu eraginkorrean antolatzeko.
- > Tamaina handikoak etxetik jasotzen dira, ez kaletik ez eta ataritik ere.

 www.mcp.es